[*Liburuei ez diegu lumarik jarri, neurtzeko adinako iritzi sendorik ez baitugu oraindik.*]

INON IZATEKOTAN

Juan Luis Zabala
SUSA
198 orrialde

1985 urtean hasi eta 2006ra, idazle azkoitiarrak idatzitako koaderno literarioa da argitaratu duen azken liburu hau. Erakargarria du azala, baita mamia ere. Gogoetak, oharrak, artikuluak, ipuinak nahiz poemak…, denetik aurkituko du irakurleak. Egitura berezia du liburuak, eguneroko interesgarria!

ECCE HOMO

Laura Mintegi
TXALAPARTA
247 orrialde

Hainbat eleberri idatzi du Laura Mintegik azken urteotan. Bere aurreko lana *Sisifo maiteminez* izan zen; maitasunak sortutako mina zuen ardatz orduko hartan. Oraingo nobelan, maitasunak baino areago, gizon edo emakume izateak, oro har bizitzan eta zehatzago esan, politikan duen eragina aztertu du.

ETXEA

Josu Penades
ALBERDANIA
155 orrialde

Bermeoko idazleak, beste hiru liburu argitaratu zituen azken lan honen aurretik: *Lauaxeta: historian hezurmamituriko sinesmena, lluntzero elkarrekin* eta *Hurrengo itsasgoren zain. Etxea* liburuak pisuzko gaiak lantzen ditu: errealitatea, oinazea, memoria, itxaropena, utopia…

BALA HUTSAK

Castillo Suarez
ELKAR
103 orrialde

Castillo Suarez, Altsasuko idazlea, bide oparoa egiten ari da poesigintzan. 1999 urtean abiatu zen, *Amodio galduak* poesia liburuarekin. Orain artean, *Mugarri estaliak* eta *Spam poemak* bildumak izan dira seguruenik bere ibilbideko lanik osatuenak. Orain bada beste bat: *Bala hautsiak.* Azaleko kolore biziek adinako bizitasuna duten poesiak.



ARIMA ENKONIATUAK

Xabier Mendiguren Elizegi
ELKAR
204 orrialde

Lau kontakizun biltzen dira idazle eta editore beasaindarraren azken liburuan. Ipuin luzearen eta nobela laburraren mugamugan dauden lau kontakizun. Bide ezberdinetatik abiatu eta testuinguru nahiz garai ezberdinetan kokatuta, guztiek dute oinarrian gai beraren oihartzuna: Harremanak, maitasuna, sexua…



LILE

Peru Magdalena
ELKAR
171 orrialde

Igartza sariaren akzesita jaso du gazte durangarrak lan honekin. Idazteaz gain, afizio ugari du inondik ere: Txaman poesia-literatura bandaren partaide, bertsotan ibilia, Arpistak kolektiboarekin bi disko surrealista kaleratu ditu, marrazkilaria… Bizitza eta artea, eskutik lotuta ekarri ditu lehen lan honetara.

TEILATUKO LIZARRA

Koldo Izagirre
SUSA
109 orrialde

Hogeita hamar urte zituenetik, argitaratutako eta argitaratu gabeko kantuen letrak bildu ditu liburu honetan Izagirrek. Denetarik pixka bat: sehaska kantuak, blues-a, baladak, koplak… Joseba Tapiari eskaini dio lana: "…perfekzioaren arriskuaz jardunda/ kontsolatzen nauelako eta, ondoren,/ soinua jotzen hasten delako alegia deusez…"

BAIETZ OKERREKO BIDEA AUKERATU!

Edorta Agirre eta Asisko Urmeneta
ALBERDANIA
132 orrialde

Donostiarrak eta iruñearrak bat egin dute liburu honetan. Lehenak hitzak jarri ditu, marrazkiak bigarrenak. Etorkizuneko elikadura ohiturak abiapuntu hartuta, ehun bat apustu egin dute: Nolako etorkizuna espero dezakegu? Zer merezi dugu? Baserriarenak egin al du?…, erantzuna aurkitzeko galdera ugari!